


Beñat Fernandezek munduko txapelketa eskuratu du Red Bull Rookies Cup 2026 txapelketan / 13



Andoaingo euskaltzaleek hitzordua dute, ostiral honetan, Kaimuturrean / 15



Kultur ekintzaileari gorazarre

Jaietarako prest da Urnieta. Aurtengo omendua Antton Jauregi izango da / 10-11



EGIGUN DENON ARTEAN!

Ekitaldiaren aurkezpena herritar guztiei zabalik

OSTIRAL HONETAN!

18:30
HASIERA EKITALDIA
Kale Berria, 50
(Guipuzcoano zaharra)

19:00
AIDÜRÜ
Kaimuturra
(espigoia)



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



‘Euskara Familian’ programa

Euskara eskolak, Mintzalaguna egitasmoa eta Familia Lantegiak, aukeran, Andoaingo Udalaren eskutik

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko Euskara Sailak, herriko lau ikastetxeekin lankidetzan, Euskara Familian

ekimena jarri du martxan. Programaren helburu nagusia familiaren, eskolaren eta herriaren ahaleginak uztartzea da,

haurren euskalduntze prozesuan gurasoen bidelaguntza indartzeko. Hiru aukera dira:

- Euskara eskolak (euskara ez dakitenentzat): Haurrak ikastetxean dauden bitartean eskainiko dira A0, A1 eta A2 mailako hasierako eskolak, astean bi egunetan. Taldea osatuz gero, eskolak ikastetxetan bertan emango dira.

- Mintzalaguna (ikasten ari direnentzat edo hobetu nahi dutenentzat): Euskaraz hitz egiteko ohitura duten eta ez duten gurasoak elkartzea du helburu. Bi edo hiru gurasoko talde txikietan biltzeko aukera, umeak eskolan utzi berri-tan kafetxo bat hartuz edo gurasoek euren artean adostutako lekuan eta orduan.

- Familia lantegiak (euskara dakitenentzat): HH2tik LH6ra bitarteko haurrei eta euskaldunak diren guraso zein zain-tzaileei zuzendutako aisialdi eskaintza da. Jolasak eta tailerrak egingo dira.

Izen-ematea zabalik

andoaindarraeuskaraz webgunean.

Ibili Andoain egitasmoa abiatu da

Asteazkenero herrian barrena ibiliko dira, oraingoan, udalerriko ikastetxeetako ikasleak lagunduta

Erredakzioa ANDOAIN

Aurtengo ikasturteak berrikuntza nagusia dakar. Aurreko urtean Leitzaran Institutuko Arreta zikloko ikasleen laguntza izan bazuten, oraingoan herriko hiru ikastetxeek hartuko dute parte

egitasmoan. Lankidetzaz zabal horri esker, belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sustatu eta komunitate-sarea sendotu nahi dute. Hitzordua astero mantenduko da: asteazkenero, goizeko 10:30ean, elkartuko dira

Goikoplazan herrian barrena ibilaldia egiteko. Gainera, saioa borobiltzeko, hamaiketako eskainiko diete parte-hartzaile guztiei.

Antolatzaileek dei egin diete adin guztietako herritarrei ekimenean parte hartzera.

Programaren helburu nagusiak nahi gabeko bakardadeari aurre egitea, bizitza osasuntsua sustatzea eta herritarren arteko topaketak nahiz harreman sozialak erraztea dira, jarduera fisikoa eta konpainia uztartuz.



Asteazkenean abiatu zen "Ibili Andoain". AIURRI



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etkez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbije Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:

Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak:

Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).

Diseinua: Goleina / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



URNIETA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz



Artxiboko irudia. AIURRI

Dementzia hizpide izango dute irailaren 30ean

Andoaingo Osasun Etxeak egin du hitzaldira hurbiltzeko deialdia

Erredakzioa ANDOAIN Biztanleria orokorrari zuzenduta, dementzia pairatzen duten zaintzaileei bideratuta egongo da tailerra. Hitzaldiak irauten duen bitartean zaintza zerbitzua eskainiko dute alzheimerra dutenentzako.

Hitzaldia datorren irailaren 30ean 17:00etatik 19:30era izango da, Tolosako Kultura Etxean. Bertan dementziari lotutako gizarte zerbitzuak eta zaintzen kontratazioa landuko dira. Tolosaldea Garatzen eta Andragora dira antolatzaileetakoak.

KOMUNITATEA

OROITUZ, ANDOAINEN ANDOAIN

“40 urte memoriaren eskutik”



Nati Roa, Jon Iñarra, Maddi Trutxuelo (liburuaren diseinatzailea), Juan Ramon Garai, Julia Monge eta Alberto Encinas. AIURRI

Intxorta Kultur elkartearen 40 urteko ibilbide luze bezain emankorra jasotzen duen “40 urte memoriaren eskutik” liburua aurkeztu zuten Arrasaten, aurreko astean. Memoria historiko antifrakistak azken hamarkadatan Euskal Herrian bizi izan duen mugimenduaren baitan, aitzindaritzat jo daiteke Intxorta elkarte. Orain 40 urte bezala, gaur egun ere Intxortak frankismoaren biktimenezat “Egia, justizia eta erreparazioa” eskatzen jarraitzen duela esan zuen Intxorta Kultur Elkarteko kide den Juan Ramon Garaik.

KOMUNITATEA

EGAPE DANTZA TALDEA

URNIETA

Urnieta Erromerian

Urnieta Dantzan jaialdiaren 20. urteurrena ospatzeko, Egape Dantza Taldeko kideek Erromeria Eguna antolatu genuen maiatzaren 23an, dantza, musika eta herriko kultur adierazpenak ardatz hartuta. Egun berezian bizitako uneak gogora ekartzeko, orain, egun hartako irudi guztiak bildu dituen bideoa argitaratu dugu. 20 urteko ibilbidea ospatzeko, dantzariak, musikariak, elkarteak eta herritarrek elkartzeko ginen; Dantzatzan duen herria, herri bizia delako. Labetik atera berria!



Eskualdeko informazioa, orain ere, Aiurriren WhatsApp kanaletan

Batu zaitez!

Sanmieletan murgiltzeko irrika

Amaierarik ez duen udagihoan iritsiko dira Urnietako jaiak. Txosnagunean egingo dituzte lehen ospakizunak eta jaiak, ofizialki, hilaren 25ean abiatuko dira. Ohi bezala, jaien hasierako txupinazoa eta pregoia ostiral arratsalderako iragarrita daude

Jon Ander Ubeda URNIETA

Iazkoak ez ohiko jaiak izan ziren eta, aurtengoak, normaltasunaren bidetik igaroko direla dirudi. Urnietako Udalak hamaika ekitaldi iragarri ditu hurrengo bi asteburuatarako eta, Txosnagunean, aste honetan, ekitaldi osagarri gehiago izango da. Denen artean, gustu guztiak asetzeko moduko hitzorduak eskainiko dizkiete urnietarrei: konzertuak, otorduak, kalejirak, danborrada, jolasak... Urnietarreki eta jai-eremura hurbiltzen diren bisitariek jaiak gozatzeko hamaika aukera izango dute.

Jai egitarauan, Jorge Segura-do Urnietako alkateak eragileen



Mielaren jaitziera, artxiboko irudian. AIURRI

lana aintzat hartu du: "lan partekatu horri esker, adin eta sentsibilitate guztiengan pen-tsatutako jaiak gozatu ahal izango dugu". Argitalpen berean, Ja Batzordearen gonbita herrikideei: "elkarbizitza onez eta emozioz beteriko jaiak opa dizkizuegu".

Lehen asteburua igaro da, Sanmielen atarikoak: bertso-afaria, Aurorak, Xake txapelketa, Extremadurako jaiak... giroa berotuz joan da hitzorduz hitzordu. Bigarren asteburuaren atarian gaude, Sanmielak bete-betean ospatuko direnak. Asteburuaz harago, asteartean biziko da San Miguel egun handia. Aurten, Antton Jauregi izango da omen-dua. Eta urriko lehen asteburuan jaiak izango du jarraipena, baserritarren eguna ospatuko baita. Berriki aditzera eman dutenez, gainera, urriko lehen asteburu horretan Burrumba gazte euskaltzaleen ekimenak egun osoko plana iragarri du. Pozgarria da, gazteen artetik, euskararen aldeko ekimenak martxan jartzea. Urrian murgilduta, atsedenaldirako tarterik gabe, Xoxoka murgilduko da jaietan. Aste politak dituzte aurretik festazaleek.

Trafikoan eragina, datozen egunotan

Ohi bezala, Idiazabal kalea moztuko da eta horrek eragina izango du bus zerbitzuan

Erredakzioa URNIETA

Jaiak gozatzeko egunak izaten dira baina, era berean, eragina izan ohi dute hainbat alorretan.

Idiazabal kalea, itxita

Irailaren 26tik eta 27ra, larunbatetik igande goizera, itxita egongo da Itxaspe paretik Kandela tabernaren pareraino. Gauza bera egingo da urriaren 3tik 4ra, larunbat arratsaldetik igande goizera bitarte.

Bus zerbitzua

Idiazabal kalean mozketek iraun bitartean bi autobus-geltoki egongo dira: Elkarleen Etxearen ondoko biribilgunean eta Ermotegi-Langardako biribilgunean.

Aparkatzeko murrizketak

Errekalde eta Akan kaleetatik igaroko den goitibera-lehiaketa dela eta, aparkatzeko murrizketak egongo dira, inguru horretan, ostegunean.

Puntu morea

Aurten ere udalak informazio eta arreta-gunea izango du Plazido Muxika plazan, Gaztelekuan, arratsaldeko 19:00etatik goizeko 04:00ak arte. Ostiralean eta larunbatean izango da martxan zerbitzua.

Xake jokalarien bilkura, aurreko larunbatean

Larunbat arratsaldean xake txapelketa egin zuten Urnietan, Astigarragako klubak antolatuta. **Podiuma**

Txapelduna: Luis Angel Ortega. Txapeldun-ordea: Felix Manso. Hirugarrena: Josu Aguirre.

Urnietarrak

1. urnietarra: Manuel Hernandez.
2. urnietarra: Ander Zubizarreta.
3. urnietarra: Enrique Campos.



Haurrak, gaztetxoak eta helduak... lagun asko elkartu zen xake txapelketan. ASTIGARRAGAKO XAKE TALDEA



Urnietako
udala

"Urnietan oso maitatua sentitzen naiz"

TATI CASTILLO MERAN BAR RIOJANOS

Trenbidearen ondoan dagoen tabernaria lan eta lan ari da eta, jaietan, gehiago. Baina pozik antzematen zaio, alboan duen lan-taldeak lasaitasuna ematen diolako

Lide Ruiz Telleria URNIETA

Jaiak iristear daude. Nola egiten diezu aurre? Gogoz ala lanak jota?

Bai, lan asko dut. Egia esan, buru-belarri nabil lanean, baina, aldi berean, ez dit beldurrik ematen, lan-talde ona dagoelako atzetik. Gauzak aurrera ateratzen ditugu, horregatik lasai nago.

Zer moduz urnietarren artean? Bezeroek ondo zaintzen al zaituzte?

Nahiz eta beste toki batetik natorren, Urnietan oso maitatua sentitzen naiz. Urte askoan Zaldundegi jatetxean egon nintzen lanean, eta oso harreman ona izan nuen haiekin. Gaur egun tabernara datozen bezero gehienek bertan ezagutu ninduten, eta, egia esan, oso maitatua sentitzen naiz herri honetan. Bezeroekin dudari harremanari dagokionez, tratua ona izan da beti, aurreko jatetxeko bezero berak dira. Noizbait, momentu puntualen batean bezero desatseginena etorri izan da, baina ez da ohikoena, inondik inora. **Zer gustatzen zaizu gehien lanean? Eta gutxienekoa?**

Jendearekin egotea asko gustatzen zait, harremanetan egotea eta haiekin denbora pasatzea. Txarrena, berriz, desatseginak diren bezeroak jasan behar izatea. Egia da negozio mota honek badakizula batzuetan egoe-



Tati Castillo, Riojanos tabernaren barran. AIURRI

"TABERNARA HURBILTZEN DIREN BEZERO GEHIENEK ZALDUNDEGIN EZAGUTU NINDUTEN"

"GAZTE FESTETAKO PINTXO LEHIAKETA IRABAZI GENUELA JAKITEAN HUNKITU EGIN NINTZEN"

ra desatseginak biziko dituzula, eta horri aurre egin behar zaio.

Festei begira zerbait berezia egingo al duzue (ogitartekoak, menuak, eskaintza gastronomikoa...)?

Ez, betiko menua eskainiko dugu. Menua beti Instagrameko kontuan jartzen dut, janaria eskatu nahi duenak zuzenean bertatik eskatzeko, lan egiteko modu azkarragoa da. Horren bidez, jendea festetan tabernara datorrenean, eskaera eginda izaten dute, eta edaria da eskatu behar duten gauza bakarra. Bereziatsunean dagokionez, beti izaten dugu DJ bat edo musika pixka bat. Jendea animatzeko zerbait, behintzat.

Zenbat eragiten du eguraldiak zuen negozioan?

Asko eragiten digu. Eguraldiak erabat baldintzatzen du taberna honen egoera. Negua denean, oso ilun egoten da, triste samar. Udan, berriz, terrazak protagonismo berezia izaten du, gainezka egoten da.

Maiatzean pintxo lehiaketa irabazi zenuen. Egun berezia izango zen zuretzat, ezta?

Hunkitu egin nintzen, ez nuen batere espero. Pintxo erraz bat prestatu nuen, nire herrialdeari omenaldi txiki bat egin nahi izan nion. Dominikar Errepublikakoa naiz, eta bertako erara prestatu nuen pintxo, oilasko-bularkia protagonista izanik.

Urnietako jaietatik, lanetik kanpo zerbait gozatzeko aukera duzu?

Bai, tarte bat baldin badut, jaiez gozatzen saiatzen naiz. Saiatzen naiz, behintzat. Nahiz eta nekatuta egon, tabernatik kanpora goaz, eta bertan DJak jarritako musikarekin dantzatzeko dugu eta terrazan daudenekin egoten gara. Hori da, batez ere, egiten duguna.



Kontzejupean postua jarri zuten.

Extremadurako zaporeak eta tradizioa, Urnietara

Sanmielen aurreko asteburuan Extremadurako gastronomiaz eta folkloreaz gozatzeko aukera izaten da Urnietako plazan. Aurretik ere dozenaka lagun hurbildu ziren Kontzejupean jarritako postura. Opilak, ogia... aukera zabala zegoen. Gainera, lurralde hartako dantzen erakustaldia egin zuten eguerdian.

Donostiako Extremadura Zentroa da Urnietako hitzordua antolatzeaz arduratzen den erakundea.



Ardo eta jakien postua jarri zuten.

Herri eta auzo jaiak

Aiurri.eus webgunean

- Argazkiak
- Bideoak
- Albisteak

Okm:
batzen gaituen
distantzia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Agirre gai-jartzailea, Gaztelumendi eta Pagola bertsolariei begira. AIURRI



Giro ederra sortu ohi da Oianumen, bertso-afarian. AIURRI



Hainbat bertsoaldi ikusgai daude Aiurri webgunean. AIURRI



Aiurrik eta Poxta Zaharrek antolatu zuten bertso-afaria, Oianume jatetxearekin lankidetzan. AIURRI

Urnieta eta urnietarrak, Oianumen hizpide

Jaien aurreko bertso-afariaren usadioa berreskuratu dute Poxta Zaharrek eta Aiurrik. Hala, aurreko ostiralean, gozatu ederra hartu zuten bertsozaleek Oianumen. Beñat Gaztelumendi eta Eli Pagola aritu ziren kantuan, Amaia Agirreren esanetara

Xabier Lasa URNIETA

Bertso-afari polita osatu zuten Beñat Gaztelumendik eta Eli Pagolak, Amaia Agirre gai-jartzailearen laguntzarekin, Oianumeko sagardotegian. Ehun bertsozale erakarri zituen Poxta Zaharrek eta Aiurrik elkar-lanean antolatu zuten kultur hitzorduak. Gau polita igaro zuten guztiek ere, jan-edan atse-ginean, tertulia gozoetan eta bertso entzuketara gozagarriarekin. Koktelik egokiena ziurrenik, San Migel jaien atarian, jai-giroan

murgiltzeko. Urnieta eta urnietarrak hizpide zituzten gaiak luzatu zizkieten Amaia Agirrek Eli Pagola eta Beñat Gaztelumendi bertsolariei, eta biek ere graziarekin eta irudimenarekin eman zieten erantzuna.

EHUN BERTSOZALE ERAKARRI ZITUEN POXTA ZAHARREK ETA AIURRIK ANTOLATU ZUTEN SAIOAK

Adin guztietako bertsozaleak bildu ziren afarian, eta nabarmentzekoa da guztiak ere gutxiago-gehiago ukitzen zituzten gaiak eta egoerak planteatu zizkiela bertsolariei gai-jartzaileak.

ADIN GUZTIETAKO BERTSOZALEAK HURBILDU ZIREN OINAUME SAGARDOTEGIRA

Besteak beste, honako gaiei heldu behar izan zieten Añorgako eta Hernaniko bertsolariek: Euskal Herrian, eta bereziki Buruntzaldean, gazteen artean euskara erabileraren jaitsiera; Poxta Zaharreko gazte kuadrillen elkartek joan den ekainean antolatu zuen gazta-rolling (Azkorte belardian gazta behera bota eta haren atzetik irten eta harrapatu beharra); Manttale euskaltzaleen elkartek abian jarritako Aurorak ekinaldia; pertsonai ezkutuen ariketa (Lurdes Iriondo, Imanol Ansa, Koldo Tapia, Nahikari Garcia); polizia eta indarkeria kasuak, azkenaldian (Gaztelumendirentzat gaia, hiru bertsoetan); Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa (Pagolarentzat puntuak jarrita, lehen aldiz parte hartuko duela kontuan izanda).

Gai librean ere jardun zuten bi bertsolariek, bertso saioaren hasieran nahiz bukaeran. Bertsoaldi sorta Aiurriren web gunean ikusgai dago, bideoen atalean.



Oihana Iguaran. AIURRI

Lizaso eta Iguaran, hilaren 29an

Urnietako egun handian bertsoetan ariko dira Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso, elizan eta udaletxean.



Herriko plazan dagoen BKN kafetegian gosalduta, jarraian, kantuari ekin zioten Manttale euskaltzaileen elkarteko kideek. AIURRI

Sanmielei hasiera ona ematea gauza ederra da

"Urnietako Aurorak" baliatu zituen Manttale Kultur Elkarteak Sanmielen etorrera iragartzeko. Aspaldiko ohitura da Euskal Herriko hainbat txokotan eta, aurten, estraineko irteera antolatu dute

Jon Ander Ubeda URNIETA
Bat baino gehiago Oianumeko bertso-afariko doinuak buruan zituela hurbildu zen BKN kafetegira. Larunbatean, goizeko 8:00etarako, gosari ederra prest zuten Manttalekoek, beharrezkoa

baitzen, kantari irten aurretik, indarrak batzea. Salaberriak eta Zinkunegik gidatuta, udalerrian barrena abestu zituzten dozena bat abesti: Auroratan ohikoak diren doinuak ziren gehienak eta, letra asko, Urnietara ego-

kituta. Lehenengoa, esaterako, "Pozet gainezka ospa / festa hurbiletik / goizetik hasten dira jotzen txistularik / ondoren ez da izango dibertsio faltik / txosnetan dago zita / eta ez egin hutsik".

"Alai eta gozatuz gu beti aurrera", abestu zuten plazan. Eta, segidan, ildo berean, "Egunsentian gabiltza, kantari umore onez, alaitasuna zabalduz bazter guztietan pozez". Bizi dugun garaiei ere aipamen zehatza egiten zieten beste kantu batean: "Mundua nola doan kontutan hartuta, guk ez dugu etsiko jurgistak gara-eta". 40 lagunekoa taldea aritu zen kantuan, goiz osoan. Guriaren kanpoaldean egin zuten hamaiketakoa eta Riojanosen bazkaria eginez boroildu zuten eguna. "Topa dagun" Jon Sarasuaren eta Os-korriren kantuarekin amaitu zen kalejira. Ikusitakoak ikusita, Manttalekoak gogo biziz eta ekintzarako prest dira.



Maria Blanco. EAB

Igandean, bazkaria, Txosnagunean

Manttalek, igandean, kantu bazkaria antolatu du Txosnagunean. 2024an Gaztelumendi anaiak izan ziren gonbidatuak. Aurten, monologoak. Hala, Maria Blanco, Manex Astigarraga eta Axier Galartza ariko dira.



Salaberria eta Zinkunegi izan ziren gidariak. AIURRI



Sanmiel jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

 **salestarrak**
MAGALE · URNIETA

URNIETA, JAJETAN

IRAILAK 24

OSTEGUNA

17:00 Bingoa Elkartearen Etxean.

18:00 Txorigorri Race Urnieta: Goitiberak Gaztelo eta Kiroldegiaren artean.

20:00 Patata-tortilla lehiaketa, Txosnagunean.

23:00 Kontzertua: Super Lore, Lappa, Mevallar, Ganbara Estudios. Segidan, Dj Los Pintxes Juanes.

IRAILAK 25

OSTIRALA TXUPINAZOA

16:30 Futbol-billar jokoa, 11-16 urtekoentzat, Zubitxo plazan.

17:45 Buruhandi eta erraldioen kalejira, Adarra Jo Txarangarekin. Plazido Muxika plaza eta San Joan plaza artean.

18:30 Bertso-poteoa Txosnagunean.

18:45 "Nire lehenengo Jaiak" zapia jarriko diete haur jaioberriei, Kontzejupean.

19:30 Mielaren jaitsiera eta Txupinazoa Urdanbor elkartearen eskutik.

20:00-22:00 Zuttik elektrotxaranga, plazatik abaituta.

20:30 Argazkia, Txosnagunean: Palestinarekin elkartasuna. Ondoren, boka, afari solidarioa.

23:00 Kontzertuak, Txosnagunean: Chuleria Joder, Lukiek, Potato, DJ Diplo.

23:30 El ultimo de la fila taldearen bertsioak, plazan. Ondoren, DJ Osto.

IRAILAK 26

LARUNBATA KUADRILLEN EGUNA

10:30 Esku pilota txapelketaren finala, Kontzejupean.

11:00 Kalejira, Urnietako eta inguruko herrietako txistulariekin.

11:30-13:00 16 urte bitarteko dardo txapelketa, Dardoka elkartearen.

12:00 Hamaiketakoa, Elkartearen etxean.



Herri Gerriya, larunbatean, Urnietan: @m_lecrepe, @muxker.j, @littlemartinselektah eta Dj Pata. Argazkian, Le Crepe. LE CREPE

12:00 Kuadrillen kalejira, Pasai txarangak lagunduta.

12:30 Poteoa, Frontoitik abiatuta.

14:00 Emakume kuadrillaren bazkaria, Riojano tabernan.

14:00 Paella jatea eta bingoa, San Juan plazan.

14:30 Herri-bazkaria eta, ostean, bingo musikatua, Txosnagunean.

17:00-19:30 DJ Osto, Idiazabal kalean.

16:30-23:30 17 urtetik gorakoentzako dardo txapelketa, Dardokan.

17:00 Kalejira, Pasai txarangarekin, Burnibide parketik.

17:30 Urdanbor, helduen danborrada, kiroldegitik abiatuta.

18:00 Agirre taldea, Elkartearen Etxean.

18:30 Gauerdia txaranga, Txosnagunetik abiatuta.

23:00 Kontzertuak, Txosnagunean: Mirail, Aimarz, Herri Gerriya eta DJ Gio.

23:30 Rock N'Hits San Joan plazan. Jarraian, DJ Osto.

06:00 Ilargi txaranga, Txosnagunean.

IRAILAK 27

IGANDEA

09:30 Diana Txanbolin txistulari bandarekin.

11:40 Salestar Magale Ikastetxeko haur danborrada. Magale ikastetxetik abiatuta. Antolatzailea: IGE Salestarrak Magale.

12:00 Skate festa. Skate park. Antolatzailea: Mannequin eta Barro elkarteak.

14:00 Kantu bazkaria, Txosnagunean: Maria Blanco, Manex Astigarraga, Axier Galarza monologisten parte-hartzearekin.

17:00 Buruhandi eta erraldioen kalejira. San Joan plazatik abiatuta.

18:00 TAVOLE kale antzerkia. Zirko Txosko konpainiarekin. Jakutegi plaza, euriarekin Saroben.

19:00 Rockalean kontzertua, San Joan plazan.

IRAILAK 28

ASTELEHENA HAURREN EGUNA

09:30 Diana, Txanbolin txistulari bandarekin.

10:00 Alkate txikien izendapena. Egape DTren Belauntxingoa Udaletxean.

10:30-13:30 Bizijolas haur jolasak, igerilekuko belardian.

**HOTEL
HK10
HOTELA**

943 33 73 57
info@hotelk10.com

GORA URNIETA!

GORA SANMIELAK!

12:30-13:30 Apar festa, Zubitxo plazan.

17:00 Buruhandi eta erraldioen kalejira, plazatik abiatuta.

18:30 DJ Xaibor, San Juan plazan.

IRAILAK 29

ASTEARTEA
SANMIEL EGUNA

09:30 Diana, Txanbolin bandarekin.

10:00-14:00 Puzgarriak, Kiroldegan.

10:30 Udal omenaldia, Antton Jauregiri.

11:30 Meza, alkate-soinua.

12:30 Txanbolin, San Joan plazan.

14:30 Bazkaria, Oianumen.

16:00-18:00 Puzgarriak, Kiroldegan.

17:30 Herri kirolak. Aizkoran: Nerea Arruti, Malen Barrenetxea,

Julen Gabirondo eta Hodei Ezpeleta, Iker Vicente eta Oier Mitxelena. Harria jasotzen: Malen Morandeira eta Maddi Salterarin. Egapeko jolastokian.

18:00 Iago magoa, Zubitxo plazan.

19:00 Puro Relajo, plazan.

21:00 Mielari agurra, azken traka.

URRIAK 2

OSTIRALA

22:30 Zeatikez eta Hofe, plazan.

URRIAK 3

LARUNBATA

11:00 Bizikleta festa, 2-12koentzat.

18:00 Esku pilota jaialdia.

19:30-21:00 DJ Revu, Idiazabalen.

23:00-03:00 DJ gaua: DJ Revu eta Siwanaba, Idiazabal kalean.



Puro Relajo, iazko jaietan. Aurtan, San Miguel egunean joko dute arratsaldeko 19:00tan hasita. AIURRI

URRIAK 4

IGANDEA
BASERRITAR EGUNA

12:00 Meza nagusia.

12:00 Ardo dastaketa.

18:00-20:00 Txekor jatea, sagar zakuaren erronka, sagardo dastaketa, Iratzar erromeria taldea.

18:30 Willy Etxeberria memoriale, Zesta punta jaialdia. Martin Mujika Erremonte Jaialdia.

Aiurri.eus gunean, jaiaren egunez egunekoa.

URNIETA, 2026ko
SANMIELAK

Urnietako Udalak jai zoriontsuak opa dizkizue urnietar guztiei

Xabier Lasa URNIETA

Urnietako kultur gintzan hamar-kadatan egin duen ibilbidea aitortuko diote. Eragile gisa, musika hezkuntzan, txistuaren sustapenean, Urnietako kultur ondarearen zabalkundean... ekin-tzaile sena dauka, hitzotan laburbildu daitekeena: "ekin, hasitako hori bukatu eta aurrera segi, ez tigan lokartu gabe". San Migel egunean Txanbolin Bandak joko duen abesti berri baten sorkuntzan topatu dugu, eta egingo zaion aitortzaren aitakian, iraganean egindakoari gainbegiratu ematea eskatu dio Aiurri. **Nola jaso duzu aitortzarako izendapena? Zer nolako sentimenduak dabilzkizu geroztik?**

Pozgarria izan da niretzat, ezin ukatu. Jakinarazi zidatenean, nire buruari galdetu nion ez ote dagoen ni baino gehiago merezi duenik. Urnietako herriarekin edukitako loturagatik eta kultur arloan egindakoagatik izango dela aitortza jakinarazi didate, eta horrek ematen dit ilusioa. Gure gizartean ohituta gaude kirolariak goraipatzera beren lorpenengatik, eta ez hainbeste kultur gintzan, zientzian edo antzeko arloetan dabiltzan pertsonak jartzea balioan, eta alde horretatik, pozgarria da kultur eragile bat nabarmendu izana.

Bestalde, poza are handiagoa egin zait, nire familiarekin zerkusia duten sinbologia handiko bi gertaerekin bat egiten baitu izendapen honek. Batetik, 100 urte betetzen dira gure familia Amezetatik Urnietara heldu zela; Joxe Antonio, aitona, errementari, aizkoragile eta perratzaile gisa jarri zen Urnietan; orduan ofizioan bakarra zegoen herrian. Eta bestetik, 60 urte betetzen dira Egape ikastolan ikasten hasi nintzela hiru urterekin, eta aurtengo denboraldian, hain juxtu, hiru urteko biloba ere matrikulatu da bertan.

Abenduan hartuko duzu erretiroa Egapen. Baina lantokian erretiroa hartzea eta ekin-tzaile izateari uko egitea, ez dira bata bestearen atzetik etorriko zure kasuan, ala?

Ezta inondik ere! Abenduaren 21ean oporrekin batera eskola utzi, eta atsedena hartu nahi dut lehenengo eta behin, estres handiko bizitza eraman baitut urtetan. Hortik aurrera, Santiagoko bidea, kirolari eutsi, eta irakurzaletasuna eta biolin eta gitarra ikasketak zaindu nahi nituzke. Aparte, buruan egitasmo batzuk

"Pozgarria da niretzat omendua izatea"

ANTTON JAUREGI KULTURGILEA

San Migel jaietako egun handian, Antton Jauregi Aranbururi (Urnietan, 1963) omenaldi instituzionala egingo dio Urnietako Udalak



Abenduan hartuko du erretiroa Egape ikastolan. AIURRI

badarabilzkiz, eta horiei ere heldu nahiko nieke. Besteak beste, musika partiturak egiten segitzen dut, eta, gizarte onurako ekimenen batean murgildu nahi nuke; zehazkiago, haurrak, minbizia eta musika uztartzen dituen egitasmo bati helduko nioke gustura. Urnietan urtetan medikua izan zen Jose Luis Paulin oiar-tzuarra bezalako pertsonak miren ditut, erreferente etikoak direlako niretzat; gizona Saharara joaten da oporrak hartzen dituen aldiro, hangoak zaintzera. Lehengoan berarekin egokitu nintzen, eta bota zidan esaerak zer pentsatua eman zidan; zoriontasunak ate bat dauka, barrura irekitzen dena, ez kanpora.

Ideiaen bat eskuarte duka-danean, buru gogor jartzen naiz hari bukaera eman arte, eta bidean, barrua hustuta geratu ohi zait. Hori izan da konstantea nire bizitzan, eta ez zait iruditzen aldatuko zaidanik ezaugarri hori. **Egape ikastolara lotuta daramazu bizitza osoa.**

Emaztea zenak esan ohi zidan nire lehen etxea ere bazela, are gehiago eraikina etxebizitzatik 130 metrora edukita. Egia esan,

"EZ DIOT BELDURRIK LANARI, ETA ORDU ASKO SARTU DITUT IRAKAS-MATERIALAREN SORKUNTZAN"

ez naiz taberna-gizona, eta ordu asko egin ditut ikastetxean. Sekula ez dut galdu lotura ikastolarekin, hari itsatsita doa nire bizitza erremediorik gabe. Lehen promozioiko ikasle gisa urte mordoa egin eta gero, txistua jotzen segi nuen eskolaz kanpoko ekin-tzetan, eta gero, beste 42 urte daramatzat irakasle gisa.

Egape ikastolarekin lotutako umetako oroitzapen ugari daukat nirekin, eta denak egiten zaizkit gogoangarriak. Umeak ginela, nola egin genituen ikasketak garai bateko Elizondo zine-antzikiko azpikaldean, Elizako sakristauan eta beste tokietan irekitako geletan... Gurasoek izugarritzko lana egin zuten hasiera haietan; herri proiektutzat hartzen zen ikastola, eta denongan txertatu zen auzolanaren filosofia. Dirua biltzeko zimite-rioan egiten zen tonbolan ordu batzuk pasa genituen umeak ginela...

Irakasle gisa jardundako ikas-turtetan, berriz, izugarri gozatu izan dut haurrekin musika irakasle gisa. Zuzendari izandako denboraldia ere azpimarratuko nuke; oso erreta amaitu nuen publikazio-prozesua egokitu zitzaidanez tartean. Dena den, eta perspektibarekin ikusita, harro nago egin genuen kudeaketagatik; kontrakoen eta aldekoen ahotsa entzunarazi ondoren hartu zuen erabakia eskola-komunitateak, titularitate publiko-ra pasatzea, alegia. Ni horren kontrakoa nintzen orduan, baina egokia izan zela aitortu beharra daukat egun.

Txistua ardatz izan duzu zure bizitzan, eta txistularia zara askorentzat.

Justo Egaña irakaslea Azkoititik heldu zitzaigun, eta hark tentatu gintuen txistua jotzeko. Buruan futbola besterik ez neukan, baina lagun batzuk izena eman zuten, eta amari esan nion nik ere probatu nahi nuela. Jotzen hasi, eta agudo ohartu nintzen baneukala dohain natural bat instrumentu harekin, eta aitzitik, beste gauza askotan ni baino bizkorragoak zirenak ez zirela ni bezain egoki moldatzen. Gustura heldu nion txistuari, eta iritsi nintzen dena memoriaz ikastera, partitura bat irakurtzen jakin gabe, iraganean herrietan txistuaren transmisioarekin gertatu izan den bezalatsu. Kapaz nintzen Donostiako txistularien diskoa osorik jotzeko, soilik entzumenak lagunduta. Gero, ira-

kasle bihurtu nintzenez, Her-
nanin eta Donostian egin nituen
musika ikasketak. Titulurik ez
nuen lortu, ikasgairen bat edo
beste ez bainuen gaintitu, baina
interpretatzaile gisa maila bate-
raino behintzat iritsi naiz txis-
tuarekin, herri mailan ibiltzeko
moduan. Punta-puntako txistu-
lariekin jotzea egokitu izan zai-
danean, orduan ohartu izan naiz
argi, koska bat gorago badauka-
la maila txistuak Euskal Herrian,
oso txistulari bikainei esker.

**Ikasleei musika lengoaia modu era-
kargarriaz lantzeko xedez 1995ean
sortu zuen "Pentagrama enea"
ipuina berrituta aurkeztu zenuen
ekainean. Zure barne-kezka batetik
sortu zenuela gogorarazi zenuen
joan den ekainean.**

Halaxe da. Barne-prozesu baten
emaitza izan zela esango nuke,
eta horren sorburua Lurdes Irion-
do eta Xabier Leterekin egin
genuen "Buruntza azpian" an-
tezlana izan zela pentsatu izan
dut beti. Gogoratzen naiz audioak
grabatu behar izan zirela orduan,
eta Lurdesek nola eskatu zigun
batzuei ahotsa jartzeko, eta nola
joan ginen behin baino gehiago-
tan Gasteizera grabazio estudio
batera. Geroztik ohartu izan naiz
Lurdesek gudan erein zuen an-
terkerirako haziak izan zuela
eragina.

Urtetara, musikako klaseak
ematen hasi nintzenez Egapen,
berehala egin nuen bat irakas-
kuntzan zegoen ezinegonarekin,
musikaren pedagogiaren arloan
materialaren falta zela-eta. Bes-
talde, lagunei-eta beti entzuten
nien kopla berbera, jasanezina
zela solfeoaren matraka! Errea-
litate horiek kontuan izanda,
musikaren didaktika izan zen
nire kezka nagusia. Eta bat egin
nuen Fernando Mora neurozien-
tzilariaren esanarekin: jokoa
ikaskuntzaren mozorroa dela,
alegia. Didaktika zale amorratua
izan naiz beti, bide egokia dela-
ko gauza abstraktuak irakasteko
haurrei, eta era horretan, ipui-
naren bitartekoari heldu nion
haurrekin jarduteko. Hain zuzen,
"Pentagrama enea" ipuina sortu
nuen ikasleei musika lengoaia
modu erakargarriaz lantzeko
xedez, 1995ean.

Eta egia esan, zoragarria izan
da urte guzti hauetan metodo
horrekin landu izana haurrekin
musika.

**Musika irakaskuntzan, esan daite-
ke erreferentzia bilakatu dela "Pen-
tagrama enea".**



"Zoragarria izan da urte hauetan guztietan 'Pentagrama enea' metodoarekin lanean aritzea". AIURRI

Irakasle batzuk erabilgarri egiten
zaiea adierazten didate, bai. Bes-
talde, musika-irakasleen irakas-
le ere izan naiz Jaurilaritzaren
"Prest Gara" programaren esku-
tik, eta arlo horretan materiala
ugari sortu izan dut; dena digi-
talizatu eta interneten zabaldu
izan dut. Lehengoan kalkulatzeko
aritu nintzen, eta akaso 600 bat
bideo egongo dira eskuragarri,
nahi duenarentzat. Nire asmoa
da sakabanatuta dagoen guztia
webgune bakar batean biltzea
egunen batean. Ez diot beldurrik
lanari, eta makina bat ordu sar-
tu ditut irakas-materialaren sor-
kuntzan; teknologia berriekin ere
ez naiz gaizki moldatzen, eta bere
garaian ikusi nuen sarera zabal-
tzen. Aita errementaria zen, oso
langilea, eta hortik datorkidala
niri lan gaitasuna pentsatu izan
dut. Ezeren truk egin dut lanke-
ta hori. Material guzti hori mu-
sikaren irakaskuntzan murgil-
tzeko lagungarri zaiela batzuei
jakiteak, horrek asebetetzen nau
erabat, ez dut gehiago behar zo-
riontsu izateko.

**Urteak daramazu Txanbolin txistu
elkartean, gidari gisa. Nola ikusten
duzu txistuaren etorkizuna Urnietan
eta Euskal Herrian?**

Ni Urnietan mugitu izan naiz,
eta hortik kanpora gutxi atera
naiz. Txanbolinen gabiltzanak
urte batzuetarako soka badau-
kagu eta Udalarekin hitzarmena
badaukagu, eta alde horretatik,
epe ertainera begira etorkizuna
nahiko ziurtatuta dagoela esan
daiteke. Bestalde, neure esku
dago txistuaren irakaskuntza,

eta bost bat ikasle dabilta taldean
egun, gazteak gehienak. Hori
bai, nekea pilatzen ari zait, eta
idealena, ardura hori musika
eskolak hartzea beharko luke
izan, Andoainen egin duten eran.

Dena esatera, ez dago irtenbi-
de errazik, izan ere, hainbeste
instrumentu jartzen zaizkie au-
keran gazteei... Iraganean oso
murrizta zen gazteontzat musika-
eskaintza, eta txistuak garrantzi
handia zeukan gizartean, euskal
kulturaren eta identitatearen
parte gisa ikusten zelako batik
bat. Erabat irauli da egoera hori
gaur egun, eta musikan ez ezik
aisialdian, kirolean.... mila au-
kera dauzka gazte batek; uler-
tzekoa da txistua ez izatea gau-
zarik erakargarriena.

**Eragile nagusienetakoa izan zinen
Antzerki musikatuaren zikloan: Mari-
zulo (2009), Urnietako 59 (2011) eta
1936 (2013). Urte batzuk igarota,
nolakoa da bolada emankor hark
eragindako oroitzapena, zaporea?**

Oso gozosa, Urnietako kultur on-
darean betirako geratuko diren
egitasmoak izan baitziren. Ge-
roztik ere, kontuan hartzekoak
dira egin ziren beste bi ikuskizun:
"Zuria gure erara" (Juan Inazio
Iztuetaren buruzko dantza-ikus-
kizuna, 2015ean), eta "Soinuen
begirada" (herriari buruzko be-
girada historikoa, ikuspegi este-
tiko batetik, 2019).

Esan daiteke konjuntzio polita
gertatu zela, hainbat kulturgile
batu baitziren norabide berean:
Luis Mari Zaldia historian adi-
tua, Mikel Agirregomez korta
antzerkigilea, Edu Murumendia-

raz dantza irakaslea, Juan Agirre
idazlea, eta, Txanbolin taldea.
Herriko hainbat pertsona proiektu-
ra erakartzea lortu zen, eta
begibistakoa da lortu zen emai-
tza kolektiboa, edozein herri
harro sentiarazteko modukoa.

Kultur ekimen guzti haien gai-
neko bideo eta argazkiak jasota
daude zenbait webguneetan, eta
egokiena, den-dena web gune
bakar batean biltzea eta Udalak
daukanera eranstea izango litzate-
ke.

**Egitasmo horietan, musika konpo-
satzaile gisa jardun zenuen. Zer
moduz moldatu izan zara eginkizun
horretan?**

Ez naiz konposatzaile sentitzen,
errespetu handia eragiten dit
titulu horrek; konposatzailetzat
hartzeko batek bere burua, Jose
Ignazio Ansorena edota Joxe
Mari Oiartzabalen parera iritsi
beharra dauka. Dena den, aben-
tura horretan ere murgiltzera
animatu nintzen noizbait, premiak
bultzatuta beharbada. Kontua
da Txanbolin kideek, beste
herrietan antzera, Urnietan ere
txistularien alardea egitea era-
baki gurea halako batean.
Baina gauza desberdina nahi
genuen egin, ukitu originalare-
kin-edo, Txistulari aldizkariko
partituretara jo gabe beste askok
egiten zuten eran. Horrenbestez,
piezak sortzeari ekin genion
akordeoia, gitarra eta txistuare-
kin. Egundoko erronka eta pre-
sioa jarri genion geure buruari,
baina polita irten zen alardea,
Xabier Ubillosek eta biok sortu
genuen kanta sortarekin. Emai-

Abesti sortzailea

Sarobe, Idiazabal kalea,
Jentilbaratz, Buruntza
azpiko txistularia, Nik ez dut
amets handirik, Gaztedi
jaiak eta Juxto.

Hainbat abestien
moldaketa Txanbolinentzat,
Egape DTrekin jotzeko.

Egape ikastolan:

- "Zapaburu" eta
"Zetarren".

Xabi Ubillosek in bat:

- "Soinuen begiradak"
ikuskitza: Buruntza
zuria, Eteneta, Mulisko,
Aierdi, eta, Sanson harri.
- "Zuria, gure erara"
ikuskitza: Haizea,
gatazka.

tza horrek bide beretik segitzea
hauspotu gintuen.

**Hezkuntzarekin eta kulturarekin
lotzen zaitu jendeak. Baina zu kirolari
amorratua ere bazara. Pala pi-
lotaria batik bat.**

Palan (GRAVN, Herriarteko txapelketak...) ibili nintzen urtetan,
bizkarreko oinazeak zirela-eta
50 urterekin utzi nuen arte. Bes-
teak beste, Joxe Mari Iturzaeta
handiarekin bikote gisa jokatu
izan nuen garai batean afiziona-
tu mailan lehiaketarik ospetsue-
na zen GRAVN torneoan. Izuga-
rri gozatzen nuen palarekin, eta
pena bakarra geratu izan zait,
ez zirela bakarkako lehiaketarik
antolatzen. Izan ere, binaka fron-
toian galdu egiten nintzen beza-
la, bakarka hazi egiten nintzen.
Zer dela eta hori? Urnietako
frontoian orduak eta orduak
sartzen nituelako bakarka; behin
edo behin baita ere Martin Mu-
jika erremontistarekin, bera
saskiarekin eta ni palarekin.
Pasadizo bat badaukat beti kon-
tatu ohi dudana: behin, Iker
Berrospe eta biok Altzara joan
ginen Herriartekoan jokatzera;
partidua hasi eta berehala, min
hartu zuen hark. Bakarrik segi
nahi nuela esan nien epaileei;
haiek onartu, eta, juxtu-juxtu,
baina 35-34 irabazi nion bikote
bati! Bestalde, pilota sustatzaile
bezala ere aritu nintzen hoge-
i bat urtetan UKE Urnietarekin.
Kontzejupeko pala txapelketak
martxan jartzea ere egokitu zi-
tzaigun bolada hartan.



Jose Ignacio Agorretaren margolanak ikusgai izango dira Bastero Kultugunean, urriaren 1etik azaroaren 5era. TONI SASAL

Erakusketa berria, Basteron

Jose Ignacio Agorreta (Iruñea, 1963) izango da erakusketa berria zabalduko duen artista. Hark egindako adierazpen batean laburbildu daiteke bere artea: "nire margoak denboraren igarotzeaz mintzo dira, bertan behera ahaztuta utzi behar ez den memoriaz"

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Espazioak, objektuak, zuhaitz-adarrak... elementu soilak gailentzen dira Agorretaren margolanetan, denborarekin hondatzen joan direnak. Zimelduz doan garaia da, eta baita memoriaz hausnarketa egiteko gonbita ere. "Gustatuko litzaidake ikuslegoa nire koadroekin identifikatzea, eta bertan agertzen dena bakoitzaren bizipenetara moldatzea". Agorretaren hitzak dira horiek.

Urriaren 1ean zabalduko dute erakusketa Bastero Kulturgunean. Nafarroan ezaguna eta estimatua da haren ibilbidea eta, Euskal Herrian, uste baino gehiago zabaldu da haren obra. Zuzenean, "Sastraka" egitasmoari esker, eta, zeharka, hainbat artistekin lan egitearen ondorioz. Izan ere, Pello Lizarralderen eleberrien azalak Agorretarenak

Aiurriren partaidetza

Erakusketa Bastero Kulturgunearen ohiko programazioaren eskaintza bada ere, berritasuna dakar oraingoak. Izan ere, margolanen artean sortzen den gunean kultur jarduera osagarriak egiteko proposamena luzatu zion Aiurrik Kultura Batzordeari. Hala, Aiurriren eskutik, Agorretarekin batera "Sastraka" egitasmoan bat egin zuten artistak hurbilduko dira Andoainera. Hots, Rayo zinema zuzendaria, Lizarralde idazlea eta Don Inorrez musika taldea.

dira. Eta baita Don Inorrez taldearen azken diskoen portadak ere.

2022an margolaria, idazlea eta musikaria Imanol Rayorekin elkartu eta "Sastraka" sortu zuten. Lizarralderen hamabi pasartetik abiatuta, Agorretak margolan-sorta osatu zuen. Eta, Ubedaren kantuekin eta Rayoren argazki-bildumarekin, ekoizpen mardula argitara eman zuten.

Bastero Kulturguneko egonaldian lau artistak elkartzeko aukera izango da. Izan ere, datozen egunotan, guztiak igaroko baitira erakusketa-aretoetik: ESCIViko ikasleek Rayo ikasle-ohiaren hitzaldian parte-hartuko dute. Irakurle klubak, bestalde, Lizarralderen "Lanbroa" hizpide izango du. Azkenik, erakusketari amaiera emateko, Don Inorrez taldeak abesti-sorta joko du.

Hitzorduak, erakusketaren baitan



Imanol Rayo. EREIN

Zinegilea, ESCIViko ikasleen aurrean "Hil kanpaiak", "Bi anai" eta "Iñigo" filmeen zuzendaria da. Andoaingo zine eta bideo eskolan ikasi zuen eta, urriaren 19an, ikasleen aurreko solasaldian parte hartuko du.



Pello Lizarralde. EREIN

Idazlea, Andoaingo literatur-solasaldian "Lanbroa" eleberria hizpide izango dute Ane Mayozen zuzentzen duen irakurle-taldean. Bertan izango da Lizarralde, irakurleen iritziak jaso eta solasaldian parte hartzeko prest. Urriaren 27an izango da.



Don Inorrez musika taldea. AIURRI

Musika saioa, erakusketaren amaieran Azaroaren 5ean itxiera emango diote erakusketari baina atekak itxi aurretik Don Inorrez musika taldeak kantu-sorta joko du. Taldeko kideetako da Andoain bizi den Karlos Aranzegi baterijolea.

Balentria berria

Beñat Fernandez Etxeberria andoaindarra Red Bull MotoGP™ Rookies Cup 2026 mailako txapeldun berria da, Austriako lasterketan beharrezkoak zituen puntuak lortu eta gero. Balentria berria da iaz SSP300 mailan ere munduko txapeldun izan baitzen. Garapen horri esker datorren urtean goi mailan ariko da Moto3 mundu mailako txapelketan. Argazkian, Ane arreba eta Imanol aita zituen alboan, lasterketa amaitu berritan. Esan gabe doa 2019an zendu zen Ana ama oso presente izan zutela, bereziki, une gogoangarri horietan. Bastero Kulturgunean dozenaka lagun elkartu zuen lasterketa zuzenean ikusi eta animoak helarazteko.



RED BULL CUP

Aurkezpen ekitaldia

Ostiral arratsaldean egin zuen herritarren aurreko aurkezpen-ekitaldia Leizaran eskubaloit taldeak. Talde izaera indartzeko ekitaldi paregabea antolatu ohi du klubak Allurralden eta bertan elkartu ziren futbol eskolako kideetatik hasi eta senior mailakoak bitarte. Denboraldia hastear da talde gehienentzat.

SENIOR MAILA

GIZONEZKOAK, EMAITZAK

34-29 Leizaran-Aritzatalde

21-29 Arrasate-Urnieta

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:15 Leizaran NES-Eibar B / Igandea

18:00 Egia-Leizaran MUT / Larunbata



RED BULL CUP



Hainbat jarduera ezagutarazteko baliagarria da eguna. AIURRI

Andoain, mugimenduan

Beste urte batez, hainbat jarduera fisiko kalera atera eta erakusteko eguna izan zen “Mugitu Andoain!”

Erredakzioa ANDOAIN

Udalak emandako datuen arabera, 250 lagunek parte hartze zuzena izan zuten hamaika jardueretan. Udalak poza agertu du ekimena amaitu berritan, oro har, “giro bikainekoa eta gora beherarik gabekoa” izan zelako larunbatekoa: “eskerrak eman dizkiegu eguna antolatzen lagundu duten herriko eragile, kirol talde eta herritar guztiei. Alkateak egunaren bukaeran aipatu zuen moduan, argi gel-

ditu da herria bizirik eta mugimenduan daukagula”.

Udalerrian barrena, hainbat tokitan, honako jarduera hauen erakustaldia egin zuten: ipar martxa, Ibili Andoain, Kenpo kai, gimnasia erritmikoa, mendi- eta gravel-bizikleta irteerak, dantza lerroan, kirol egokitua, kangoo jumps, mendi irteera, duatloia eta arrantza.

Argazki eta bideo-sorta zabalak ikusgai dago Aiurri.eus webgunean.

FUTBOLA

GIZONEZKOAK, GORENGOA

0-1 Sanpedrotarra-Urnieta /

2-0 Segura-Euskalduna /

19:00 Urnieta-Astigarraga / Igandea

16:30 Euskalduna-Mutriku / Larunbata

EMAKUMEZKOAK, GORENGOA

18:00 Martutene-Urnieta / Igandea

17:30 Ostadar-Euskalduna / Larunbata

GIZONEZKOAK, 1. ERREGIONALA

2-1 Euskalduna B 2-Hernani B

17:25 Arrupe-Euskalduna / Larunbata

IRAILAK 26

LARUNBATA · 15:15

GALARRETA

JAI ALAI

SARRERAK

QR CODE

ORNA

K

65 SUKIS

REGUNAN

AIURRI

IKUSKIZUN PARTIDA

EZKURRA II · ZUBIRI VS

SEGUROLA · AZPIROZ

BURUZ BURUKO FINALAURREKOA (30 TANTORAK)

JUANENEA VS

BARRENETXEA IV

IKUSKIZUN PARTIDA

SUSPERREGI · GOIKOETXEA VI VS

DESKARGA · UGARTE II

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

JAIK

URNIETA Sanmielak

Udalak eta Txosna Batzordeak ekitaldiz beteriko egunak antolatu dituzte. Egitaraua, 8-9. orrialdeetan ikusgai.

Irailak 24-30.

EKITALDIA

ANDOAIN Larramendi Bazkuna

"Egigun denon artean!" kanpaina abiatuko da ostiral honetan. Egoitza berriaren aurkezpena eta Aiduru musika taldearen emanaldia, hitzordu berean.

Irailak 25, ostirala.

18:30, Guipuzcoano zaharra.

19:00, Kaimuturra.

IKUSZIRKUS

ANDOAIN Txondor plaza

Argimlutak konpainia.

Irailak 26, larunbata.

18:30, Goikoplaza.

KONTZERTUA

ANDOAIN Aire Eire

Andoingo eta inguruko musikarien emanaldia.

Irailak 26, larunbata.

19:00, Irunberri.

AURKEZPENA

ANDOAIN Topagunea

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) eta Ikasle Antolakunde Sozialistak (IAS) VI. Gazte Topagune Sozialista antolatu dute urriaren 9tik 12ra bitarte. Xehetasun guztiak ezagutzeko, aurkezpenak antolatu dituzte.

Irailak 26, larunbata.

12:30, Gaztetxea.

BERTSO-SAIOA

URNIETA Matxo

Maddi Ane Txoperena eta Eli Pagola.

Irailak 28, astelehena.

19:30, Matxo.



lazko sari banaketa ekitaldiko irudia. AIURRI

ANDOAIN Martin Ugalde ipuin eta gutun lehiaketa

Gazteen mailako deialdi bikoitza, 10-17 urte bitartekoentzat. Informazioa: martinugaldefondoa.eus/ipuin-lehiaketa/

Lanak aurkezteko eguna: urriak 8, osteguna.

TAILERRA

ANDOAIN Berdintasun Saila

"Bibollo Tantra: Presentzia, gozamena eta samurtasuna" izeneko hastapen-tailerra.

Irailak 26, larunbata. Allurralde.

10:30-14:30 / 16:00-18:00.

AISIALDIA

ANDOAIN Matrikulazioa

Urriaren 14an zabalduko dute Ludoteka berria. Izena emateko garaia da. E-posta: ludoteka@andoain.eus.

Izena emateko epealdia:

irailak 30-urriak 10.

IKASTAROAK

URNIETA Jabekuntza Eskola

Ikastaroak eta tailerrak, ikasturte berrian. .

Matrikula zabalik.

DEIALDIA

ANDOAIN Euskara

Euskara sustatzeko dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea, zabalik. *Epealdia: Urriak 30.*

ERAKUSKETA

ANDOAIN Agorreta

Nafarroako margolariaren obra ezagutzeko aukera izango da. Erakusketa hiru multzotan banatuta dago, Pello Lizaralde idazlearen esaldiekin batera.

Irekiera: Urriak 1, osteguna.

18:30, erakusketa-aretoa.

ANTZERKIA

ANDOAIN Jon Plazaola

Aitatasuna hizpide du komedia berrian.

Urriak 2, ostirala.

19:30, Bastero Kulturgunea.

ANDOAIN Metrokoadroka

"Bi baso bat ur". Antzezlanak berriro gozatzeko eta alaitasuna berreskuratzeko eskubidea aldarrikatzen du.

Urriak 9, ostirala.


19:30, Bastero Kulturgunea.

DEIALDIA

ANDOAIN Salkin

2.500 euroko balioa duen bidaia eskuratzeko aukera, zabalik. *Epealdia: Urriak 18.*


ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****La bola negra**

Irailak 26, larunbata. 19:30.
Irailak 27, igandea. 19:30.
Irailak 28., asti. 17:00, 19:30.

Toy Story 5

Irailak 26, larunbata. 17:00.



SINOPSISIA

La bola negra

Zuzendaria: Javier Ambrossi, Javier Calvo. **Aktoreak:**

Guitarricadelafuente, Miguel Bernardeau, Carlos González, Penélope Cruz, Glenn Close, Milo Quifes, Lola Dueñas, Yenesi, Julio Torres, Lorenzo Zurzolo, Antonio de la Torre, Natalia de Molina, Hugo Welzel. **Herrialdea:** Espainia (2026). **Hizkuntza:** Gaztelania.

Generoa: Drama. **Iraupena:** 159 m.



Oscar sarietarako hautagaia

Hiru gizonen bizitza interkonektatuak, hiru garai ezberdinetan. Sexualitateak eta desioak, minak eta herentziak estuki lotutako hiru existentzia; eta Federico García Lorcaen azkenetako lan amaitu gabea. Nazioartean ospea hartzen ari da Los Javis espainiarren filma.



GIPUZKOA
Foru Aldundia

Babestutako hedabidea

Ekitaldia antolatu du Larramendi Bazkunak

"Andoingo Euskera, Bihotzetik kalera" ekinaldia martxan da, beste urte batez. Ostiral honetan, kokapen bikoitza izango du hitzorduak, Guipuzcoano zaharrean eta Zehar Kaimuturrean. Aidürü musika taldea zuzenean ariko da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Arratsaldeko 18:30etan hasiko da hitzordua, Kale Berriko 50. ean, Guipuzcoano zaharrean. Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bere egin du egoitza eta jendaurreko aurkezpenari ekingo dio. Bertatik abiatuko dira, segidan, Kaimuturrerantz. 19:00tan hasiko da bigarren hitzordua, Xabier Lakaren Zehar eskulturaren ondoan. "Zatoz gurekin eztarria freskatzera! Aiduru taldearen doinuekin gozatuta!", afitxan ondo baino hobeto laburbildu dute egitaraua. Herritar guztiak daude ekitaldira gonbidatuta.

Ane Jalon Larramendi Bazkuneko lehendakariak ekitaldiaren xedea azaldu zuen aurreko astean: "Bazkideak eta andoaindarrak bildu nahi ditugu. Orain arte gure ibilbidea zein izan den azalduko dugu, eta hemendik aurrera zer antolatu nahi dugun modu orokorrean eta udazkenean zein ekimen izango ditugun ere. Batez ere, modu sinboliko bat izango da jendeari lortu dugunaren berri emateko, euskarak baduela toki polit bat Andoainen".

Gau Beltza, Azoka Berezia, Gabonetako Azoka... ostiraleko ekimenak segida izango du Andoainen.



Ane Jalon eta Nago Huizi, Larramendi Kultur Bazkuneko kideak. AIURRI



Zuzenean ariko dira Aidürü musika taldeko kideak, Kaimuturrean. AIURRI



Erakusketa zabalik da. ARANTZADI

"Natura eta gizakia: historia partekatu bat"

Erakusketa ikusgai dago, irailaren 30era bitarte, Otieta Leitzaran Bisitarien Etxean

Erredakzioa ANDOAIN
Arantzadi Zientzia Elkartek ekoitzi du proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren babespean. Lanak Historiaurretik gaur egunera arte gizakiak ingurumenarekin izan duen dependentzia, elkarrekintza eta eboluzioa aztertzen ditu. Antolatzaileen esanetan, ingurunea ezagutzea da hura zaintzeko lehen urratsa, eta Leitzaran bera da gizakiaren eta naturaren arteko historia partekatu hori oraindik ere bizirik dagoela erakusten duen adibide nagusietako bat.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Oihan
Irailaren 20an urteak bete zituen. Zorionak zure 8. urtebetetzean Oihan!! Mila musu Maren eta etxekoekin partez. Asko maite zaitugu!

HILBERRIAK

ENEKO LETE OTAÑO URNIETA

Ezbehar latza Urnietan



Gurutzeta-Moko baserriko gaztea astelehenean hil zen, ezbehar baten ondorioz. Aski familia ezaguna da Urnietan eta gertaerak saminez bete du herria. ENBA sindikatuak elkartasuna adierazi zien etxekoei, sare sozialen bitartez, une latz horietan. Argazkia 2021ekoa da, Eneko Aiurri astekariko protagonista izan zenekoa. Arraunean aritua, huraxe izan genuen hizpide astekaritan. Donostiarra arraun taldeak ere elkartasuna adierazi dio, egunotan: "besarkada sentikorrena senide eta lagunei, Beti gogoan izango zaitugu".

Eskelak Aiurriin: 90 euro

HERIOTZ-OHARRA

Silvio Alvarez Zuñiga

-Gugan bego-

Egunsentiko ihintza goizeko loreak maitasunezko hitzak zuretzat gordeak

Andoingo Udaleko lankideak Andoainen, 2026ko irailaren 17an

HERIOTZ-OHARRA

Silvio Alvarez Zuñiga

-Gugan bego-

"Zure irrifarra betiko gozatuko dugu"

Andoainen, 2026ko irailaren 17an



Aiurrikide izateak sarria dakar